

IZATEAN ALA EDUKITZEAN OINARRITUTAKO BIZITZA?

Izan eta eduki

“Izan” eta “eduki”, horra hor bizitza ulertzeko eta bizitzeko bi era, pertsona guztiongan azaltzen diren bi alderdi. “Eduki” hitzak, gauzen jabe izan, gauzak metatu, boterea, ospea, nagusitasuna... izan adierazten du eta “izan” hitzak pertsonaren barruko kalitatea adierazten du: kritikoki arrazoitu, nork bere burua ezagutu, sendotu, hartu-emanerako, elkartasunean bizitzeko gaitasuna, maitatzeko ahalmena...

Lagun asko eta asko aberatsa da, gauzak, izena, ospea... duelako, baina txiroa, zekena, harrerari, elkartasunari, bizikidetzari, besteenganako sentiberatasunari dagokionez. Alderantziz, badira ondasun materialei dagokionez apalak, xumeak direnak, baina egundoko aberastasuna dutenak adeitasunean, harreran, eskaintzan... Bizitzari, beraz, izatearen eta edukitzearen ikuspuntutik hel diezaiokegu.

Ez dira txandaka agertzen edo batzuegan bat eta besteengan ez; pertsona guztiok ditugun alderdiak dira.

- Gizakia ez da ez “izate” hutsa ezta “edukitze” hutsa ere.
- Gizakiari pertsonekin orekan bizitzea dagokio baina baita gauzekin eta izadiarekin ere.
- Gure mundu honetan gauzak ere badaude, jakina eta horiekin dugun harremanaren ondorioz gizaki bezala “osotu egiten gara”.

Beste alde batetik, ez da bidezkoa “izatea” eta “edukitzea” ontzat edo txartzat hartzea. Izan ere, bistakoa denez, edukitzean oinarritutako gizarteak aberastasuna, lanpostuak, aurrerapen teknologiko, zientifiko eta medikuak susta ditzake.

Bi alderdi horietako zein gailentzen den da arazoa. Bata edo bestea nagusitzeak ematen digu pertsonaren, kulturaren, pentsamoldearen, bizimoduaren nondik norakoen berri.

“Izatea”, “edukitzea” baino gehiago bultzatzen dugu?

Ez da erraza galdera honi erantzutea. Pertsona gehienak ez daude guztiz eta bakarrik eremu batean ala bestean. Era alternatiboak deskribatzeak, egia alde batean baizik ez dela pentsatzera eraman gaitzake. Dena dela, bi alderdien aurkezpena egingo dugu, muturreko ezaugarriak jarriz, batik bat bizimodu baten eta bestearen arteko aldeak nabarmentzeko.

	Bizitza “edukitze-senetik”	Bizitza “izate-senetik”
Norbere buruarekiko	Zoriontasuna, neurri handi batean, ospea, besteen	Zoriontasunaren giltza, norbera den bezalakoa agertzea eta izatea dela

	<p>aurrean nagusitasuna, ongizatea (dirua, ondasunak) izatetik datorrela sinetsi; ikuspuntu honetatik bizi denak ez du bere barrualdera begiratzen, "edukitzea" areagotzeko bideak arakatzea baitu helburu eta horretarako, batere etikoak ez diren hautuak egin ditzake eta inoiz ez dio itxurak egiteari uko egiten.</p> <p>Ez da garrantzitsuegia norbere jokaera eta izaera bat etortzea; are gehiago, delako pertsona horri ez zaio bere burua ezagutzea interesatzen eta, askotan, ezkutatzen ere saiatzen da.</p> <p>Delako pertsona horrek gehienetan bere baitatik kanpo bilatzen du zoriona; besteekiko babes edo mendetasunean, bere jabetzek (ondasunen, segurtasunen... metatzea) eragiten dioten konfiantzan.</p> <p>Batik bat kanpora begira bizi da pertsona hori.</p>	<p>sinestea; delako pertsona hori bere burua ahalik eta ondoen ezagutzen saiatzen da eta berez dituen ahalmenak garatzea du helburu. Bizitzan, itxurakeriarik gabe jokatzeko, nork bere bokazioa, lekua ezagutzea eta garatzen ahalegintzea, norbere egitasmoarekin koherentziaz jokatzeko... hori da xedea.</p> <p>Delako pertsona horrentzat, jabetzak ez dira garrantzitsuena eta ez dute bere arreta osoa erakartzen; norbere burua da oinarria eta norbere buruarenganako konfiantzan bilatzen da segurtasuna; borondatea sendotzea, nork bere burua onartzen ikastea ditu xedetzat.</p> <p>Bere barrualdera begira bizi da gehienbat pertsona hori.</p>
<p>Besteekiko</p>	<p>Besteak baino gehiago izatea, besteen gainean nolabaiteko nagusitasuna izatea, agintea, postua... jadesteko lehian irabaztea... joera horiek izaten dira. Horregatik, besteak, nolabait, aurkariak dira. Gauza asko ez duela pentsa dezake, baina preziatuena du: pertsonak (nagusitasuna gauza dezake emakumearen, seme-alaben, elkartearen... gainean).</p>	<p>Badaki bakarrik ezin duela osotasunik jadetsi, horretarako ezinbestekoa duela besteekiko hartu-eman edo komunikazio ona.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Horregatik, bere burua barru-barrutik ezagutzen ahalegintzen da, entzuten, jasotzen eta besteei eskaintzen, elkarrekin gozatzen, besteen "jabe" izateko asmorik gabe • Hainbat lagunek goza dezakete objektu beraz, ez dutelako "edukitzerik edo jabetzan hartzerik" nahi.

	<p>Asko zaintzen du "marketinga", lekua hartzea, lekurik ez galtzea, bere kartak ez erakustea, taldeko, gizarteko joera nagusietatik kanpo ez geratzea...</p> <p>Posesiboak, menderatzaileak, esate baterako, bikote-harremana ere nagusitasunezko jardute bezala bizi dezake: "senarra dut, edo emaztea...", "honetarako edo horretarako eskubidea dut...".</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Adiskidetasun sanoa bizitzeko gaitasuna du. <p>Ez da, besterik gabe, ingurura, honek ezarritako joeretara makurtzen; den moduan azaldu nahi du, arrazoiak eman eta landu, pentsaera kritikoa, sanoa garatu; horrela jokatzeko da, bere ustez, besteei egin dakieken ekarpenik onena.</p> <p>Maitasunak zeharkatzen du, esate baterako, bikote-harremana; harreman horretan, bizia konpartitzen da, elkarrekin gozatu eta sufritu... Batera bizi izandako poza da zoriontasunerako biderik sakonenetakoa.</p>
Bizitzarekiko	<p>Pertsona egozentriko bihurtzen da. Norberen "ni" alderdia da objekturik preziatuena ber "jabe-senerako".</p> <p>Gozamena, segurtasuna, ongizatea... bilatuz, kanpoko gauzak metatzeko arriskua nabarmena da, azken batean, guzti horrek ez daramalako barruko benetako poztasun eta zoriontasunera.</p> <p>Zenbat eta lotuago egon gauzei, orduan eta gehiago larritzen da galtzeko arriskuagatik.</p>	<p>Aurrera egiteko eta pertsona bezala osotasuna jadesteko baldintzetako bat ez inoren ez ezeren morroi ez sentitzea da. Horregatik, bere buruarengan arreta jartzea galarazten dioten eta azaleko pertsona izatera bultzatzen duten pizgarri guztietatik askatzen saiatzen da.</p> <p>Poztasuna barruko garapenari lotuta dago.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Horregatik, zailtasunen erdian ere, barruko poztasun, lasaitasun eta orekari eutsi diezaioke. • Jakina, ongizatea (kanpoko) eta poztasuna (barruko) ez dira bateraezinak. Zoragarria da uztarturik doazenean.

<p>Fedearekiko</p> <p>Fedea sineste bezala bizi da, hau da, gehien bat besteen erantzunak onartzetik. Horrela zama bat astintzen da: nork bere kabuz pentsatu eta erabakiak hartu behar izatea. "Nik fedea dut".</p> <p>Izaki Nagusi batekiko mendetasun bezala bizi daiteke fedea. Horrek segurtasuna dakarkio, baina ez "aske eta bihotz-zabal izatearen" kontzientziarik.</p> <p>Jainkoaren legeak ez betetzea da bekatua.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Horrek Hura galtzeko beldurra eragiten dio, erruduntasun-sentipena. Eta konpontzeko nahikoa da Haren barkamena eta Hari mendekotasun gehiago agintzea. <p>Estilo honen arabera bizi denak egiteko erlijiosoak "ditu" ("gaur meza daukagu"), egia erlijiosoak... baina baita pertsona erlijioso ez "izateko" arriskua ere. Fedea harreman indibidualista bezala bizi da: "norbere harremana" Jainkoarekin.</p>	<p>Fedea, Jainkoaren argitan egiten den bilatze bezala bizi da; barruko galdera sakonei erantzuna aurkitzeko bilaketa bezala.</p> <p>Fedea, Jainkoaren eta gure arteko maitasunezko harreman aberasgarri bezala bizi da. Harreman horretan, pertsonak bere egiten du Jainkoaren maitasun-eskaintza eta maitasunezko konfiantza eta leialtasunez erantzuten dio.</p> <p>Bekatua porrot bezala bizi da, norbere osotasuna jadesteko ezintasun bezala, Jainkoaren laguntza maitekorrari uko egite bezala...</p> <ul style="list-style-type: none"> • Maitasun-harremaneko leialtasunik ez bezala bizi da • Pertsonak ezinbestekoa du bere buruarekiko oreka berreskuratzea. Horretarako, Jainkoak lagunduta, Honekin eta anai-arrebekin adiskidetu egin behar du. <p>Fedea ez da "jabetza", fedea bizi egiten da eta Hari esker garena ospatu.</p> <p>Fedea elkarte esperientzia bezala bizi da.</p>	<p>Fedea, Jainkoaren argitan egiten den bilatze bezala bizi da; barruko galdera sakonei erantzuna aurkitzeko bilaketa bezala.</p> <p>Fedea, Jainkoaren eta gure arteko maitasunezko harreman aberasgarri bezala bizi da. Harreman horretan, pertsonak bere egiten du Jainkoaren maitasun-eskaintza eta maitasunezko konfiantza eta leialtasunez erantzuten dio.</p> <p>Bekatua porrot bezala bizi da, norbere osotasuna jadesteko ezintasun bezala, Jainkoaren laguntza maitekorrari uko egite bezala...</p> <ul style="list-style-type: none"> • Maitasun-harremaneko leialtasunik ez bezala bizi da • Pertsonak ezinbestekoa du bere buruarekiko oreka berreskuratzea. Horretarako, Jainkoak lagunduta, Honekin eta anai-arrebekin adiskidetu egin behar du. <p>Fedea ez da "jabetza", fedea bizi egiten da eta Hari esker garena ospatu.</p> <p>Fedea elkarte esperientzia bezala bizi da.</p>
--	---	---

Mundua edukitzearen irrikan oinarrituta denean, bake iraunkorrean, klaserik gabeko gizartean sinestea, utopia engainagarria da, bestea balizko aurkaria, balizko usurpatzailea delako eta adi egotera bultzatzen nauelako.

- Gerrak irrika horren emaitza dira. Harreman orekatsu iraunkorren eraginez lortuko den bakea gauzatzeko, "edukitzearen" gizarte egituraren ordez, "izatearen" egiturak hedatu beharko du, elkartasuna eta zuzentasuna suspertuz.
- Jabetza-grinak pertsonengandik aldentu egiten gaitu, bidegabekeriak egitera bultzatzen, elkartasunik eza eta batzuk beste batzuen gainetik bidegabe nagusitzea dakar, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko gero eta amildegi handiagoak ikusarazten digunez.

Gizabanako nahiz gizatalde guztiok adi egon behar dugu, eraz, "edukitzeak" "izatea" gararazi ez dakigun, eta pertsona eta gizadi bezala hazten jarrai dezagun.

IRUÑA ETA TUTERA, BILBAO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO KATEKESIRAKO ORDEZKARITZA ETA IDAZKARITZEN *Katekumenotza erako helduen katekesia* liburutik hartutako eta egokitutako testua. PPC, Madril 2005.